

Lurraren zaindariak makila eskuan

Kolonbiako Cauca barrutiko indigenek lurra eta burujabetza dituzte helburu. Oztopo berriz, paramilitarrak, armada eta gerrillariak. Haiei aurre egiteko lurraldearen zaindariak dituzte, kiwe *theng* zas-ak.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMAN

CAUCA BARRUTIA, itsasotik Andeetara zabaltzen dena, Kolonbiako lurralderik istilutsuenetakoa da. Kolonbiak jasaten duen gerra zibilaren azpitik, herri xumea eta indigena zigortzen duen beste gatazkarik badago: kañaren jauntxoek, ondusun mineralak ustiatzen dituzten multinazionalak, narkoek eta paramilitarrek indigenen eta laborarien aurka egiten dutena. Gatazkaren erdian, lurraldetasuna eta burujabetza du helburu nasa herriak. Arma bakarra norbere antolakuntza du, bere burua defendatzeko indarrak ez darabil.

Autonomia indigena

Barrutiko Cali hiriburutik 100 kilometrorra, Sierra Centralen, Caucako iparraldean nasa herria bizi da. Lurraldeak 190.000 hektarea ditu; horietatik %80 lur-jauntxoaren eskutatik berreskuratu dituzte azken 30 urteotan. Lurren %10ak baino ez du laborantzarako balio. Kafea, banana eta babak ereitea dute ogibide. 1991ko Konstituzioak onetsitako 14 *resguardo*etako 304 *veredetan* (herrixkak) 25.000 familia bizi dira, hots, 110.000 biztanle inguru, %85 nasa. Norbere gobernu sistema daukate: *resguardo*etako zein kabil-doetako batzarrek gobernadoreak eta aguazilak aukeratzen dituzte. Konstituzioak gobernu sistema hori bermatzen duen arren, etengabekoak dira armadaren erasoak. 18 kabildoak batzen dituen ACINgo



The Colombia Solidarity Campaign izeneko Erresuma Batuko blog batetik hartutako argazkia da. Ibilgailua Kolonbiako Polizia Nazionalaren iskanbilan aurkako eskudroikoa da. Blogariaren galdera da ea zergatik ez daraman inolako identifikazio seinalerik.

(Cauca Iparraldeko Kabildo Indigenen Elkarte) komunikazio arduran Manuel Rozentalen aburuz, nasek ez dituzte bereganatu nahi zilegitasunik gabeko estatu erakundeak; horren ordez “batzarretatik jaiotako herri agente indigenan oinarritzen den zilegitasun berria eraikitzen ari dira. Prozesu horrek demokrazia ofiziala lotsarazten du”. Lurraldetasunari eta burujabetzari eustea helburu du nasa herriak; Kolonbiako Gobernuak zein FARC gerrillak ez dute gogoko.

1980ko hamarkadan nasek euren burua defendatzeko Quintin Lame

talde armatua sortu bazuten ere, laster aldatuko zen haien politikaren norabidea. Egun, hiru dira dituzten ardatz nagusiak: MAI (Merkataritza Askerako Ituna) eta Kolonbia plana–Kolonbiak eta AEBek drogaren aurka egiteko sortutakoa– borrokatzea, eta Gobernuak onartutako nekazaritza erreforma aldarrikatzea. Tresna nagusiak dira lurra berreskuratzea eta MAIren inguruko erreferendumak bultzatzea. Garrantzitsuak dira, era berean, beraien osasuna, legeak eta historia indarberritzeko egiten dituzten atelierrak, baita auzolanean eraiki dituzten

zuzenbide eta nekazaritza eskolak ere. Bitxia da autonomia indigena babesteko sortu duten guardia indigena, *kive theng zas* izenekoa (lurraldearen zaindaria): nasen banderako berde eta gorri koloreek apaindutako makilak eskuan, hitza ahoan, parean jarriz aurre egiten diote armadari, gerrillariei eta paramilitarrei. *Vereda* bakoitzak hamabi eta 50 urte arteko hamarna emakume-gizon aukeratzen ditu guardiara; 3.500 guardiek garatzen dute nasa herriaren defentsa. Armadaren edota gerrillaren eraso larriren bat sumatzen badute, aurretiaz adostutako batzar iraunkorreko guneetan batzen dira. Horrela gertatu da, adibidez, azken bi hilabeteotan, Miranda eta La María *resguardo*ak armadaren, paramilitarren eta FARCen arteko borrokaldien lekuko izan direnean.

Nasek eragindako Gobernuaren aurkako protestaldiak Kolonbiako historiako handienak izan dira eta herriko hainbat sektoretan sekulako oihartzuna izan dute. Alvaro Uriberen Gobernuaren zoritxarrerako, autonomia indigena hartu dute eredu zutik dirauten beste hainbat sektorek. Erreferendumak, esaterako, ikasleek, sindikalistek eta laborariek zabaldu dituzte Kolonbian zehar. Herritarren %70ak parte hartu du horietan, eta adibidez, AEBekiko Merkataritza Askerako Itunak ezezko borobila jaso du. Uribe presidentek gogor borrokatu ditu mugimendu indigenak: sei urtetan 1.243 indigena erail dituzte eta 54.000k haien lurretatik alde egin behar izan dute. Tes-tuinguru honetan kokatu behar-

ko genituzke Pa'yumat herri irratia-ren –larrialdietan berehalako neurriak hartzeko nasek ezinbestekoak duten hedabidea– kontrako sabotajea eta Edwin Legardaren hilketa abenduaren 16an. Azken hori Cauca Lurralde Batzorde Indigenaren (CRIC) kontseilari Aída Quilcuéren senarra zen.

Beste askotan bezala, nasek gerrillarekiko dituzten balizko harremanak hartu ditu aitzakia Uribek erasoak onesteko.

Minga: herri aginte ibiltaria

Nasek zein beste hainbat herrik proposatutakoak duen sostengua argi geratu zen iazko azken hilabeteetan egindako Herrien Minga Ibiltarian. Andetako ohiko auzolanari erreferentzia egiteko hitza da *minga*. Helburu komunitarioak lortzeko ahalegin berezia egitea da *minga*, beste lan guztiak alboratu behar dira *minga* arrakastatsua izan dadin. Manuel Rozentalek azaldu digunez, “*minga*-ren lorpenak ez dira inorenak. Taldearenak dira, ez da horiek beregana ditzakeen inor. *Mingak* herrien heldutasuna nabarmentzen du. Diziplina, norberak berea eginez helburu komunitarioei kolektiboki heltzeko gaitasuna da *minga*”.

Hortik datoz Minga Ibiltariaren nondik norakoak. Joan den urteko azaroaren 10ean, guardia indigenak babestuta, 10.000 indigena elkartu ziren La María Piedamó *resguardo*an Bogotá hiribururaino heltzeko

Kolonbiako historiako handienak izan dira nasek Gobernuaren aurka egindako protestaldiak

asmoz. Mingak jarraipena eman zien bost urte lehenago Bizitzaren, Alaitasunaren eta Autonomiaren aldeko Batzar Ibiltariak aurreikusitako xedeei; batez ere, MAIri eta Kolonbia planari aurre egitea eta nekazaritza erreforma lortzea. Milaka kilometro hitza eta akordioak hedatuz. Aurrera joan ahala, indigenek ez ezik, sindikalistek, laborariek eta borrokan diren beste taldeek bat egin zuten Mingarekin. Besteak beste, han izan ziren irailan grebari ekin zioten Cauca kaña langile afroamerikarrak –azukrez ekoiztutako etanolak ordezkatu ditu lehengo kafe soroak–, unibertsitateetako ikasle eta irakasleak, garrailariak eta krisialdiak zigortutako funtzionarioak. Ibiltariak Piedamón, Panamericana errepide ertzean zeudela, armadak lehenengo erasoak egin zituen. Hildakoak eta zaurituak izan ziren. Mingak gizarte eredu berria eta borrokak elkarlotzeko duen gaitasunaren beldur omen da Alvaro Uribe. “Herriek elkar ikusteko, entzuteko, pairatzen dituzten arazoak aztertzeko eta bakean bizi ahal izateko erresistentzia neurriak hartzeko topagunea da Minga Ibiltaria”, dio Rozentalek.

Oztopo oro gaindituta, Bogotáko Unibertsitatera oinez heldu zirenek bestelako Kolonbia abian jartzeko nazio sarea sortu zuten. Han esandakoekin herrietara itzuli dira, tokian tokiko ebazpenak eta ekimenak har daitezten. Aurten, urriaren 12an elkartuko dira. Raul Zibechi ikerlari uruguaiarraren iritziz, “berria da protestak hartu duen sakontasuna eta, batez ere, Uriberen Gobernua hormaren kontra ipini duen eragileen batasuna”. ■